

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko urriaren 10etik 16rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/10

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. –Informazio katastrala.** – Ebazpena, 2020ko urriaren 7koa, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bateratua. Horren bidez, onetsi egiten dira kartografia katastralean finkak grafikoki irudikatzeko zehaztapen tekniko osagarriak eta beste eskakizun batzuk, Katastroaren eta Jabetza Erregistroaren artean informazioa trukatzeko. **2020-12111 xedapena - 24 or.**

2020/10/12

- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA. – Sozietate anonimo kotizatuak. Aurrezki kutxak.** - 1/2020 zirkularra, urriaren 6koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, honako hauek aldatzen dituen: 5/2013 zirkularra, ekainaren 12koa, balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartuak diren baloreak jaulkitzen dituzten sozietate anonimo kotizatuen, aurrezki kutxen eta beste erakunde batzuen gobernu korporatiboaren urteko txostenaren ereduak ezartzen dituen; eta 4/2013 zirkularra, ekainaren 12koa, balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartuak diren baloreak jaulkitzen dituzten sozietate anonimo kotizatuetakoko kontseilarien eta aurrezki-kutxetako administrazio-kontseilu eta kontrol-batzordeetako kideen ordainsarien urteko txostenen ereduak ezartzen dituen. **2020-12141 xedapena - 115 or.**

2020/10/14

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Neurri sozialak.** – Akats zuzenketa, honako Errege Lege-dekretu honena: 30/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, enplegua babesteko neurri sozialei buruzkoa. **2020-12213 xedapena - 2 or.**

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.**

- **Berdintasun planak.** - 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen, eta hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. 2020-12214 xedapena - 27 or.
- **Genero berdintasuna. Ordainsariak.** - 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, gizonen eta emakumeen ordainsari-berdintasunari buruzkoa. 2020-12215 xedapena- 11 or.
- **Alarma egoera.** - Akats-zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 900/2020 Errege Dekretua, urriaren 9koa, alarma egoera ezartzen duena SARS-CoV-2 birusak eragindako kutsatzeen transmisio ez-kontrolatuen ondoriozko arrisku bereziko egoerei erantzuteko. 2020-12217 xedapena - 1 or.

- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. – Premiazko neurriak.** - 904/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, irailaren 20ko 11/2019 Errege Lege-dekretuaren 9. artikuluan ezarritako neurrien aplikazioa deklaratzeko duena 2020ko martxoaren 31ra arte gertatutako hondamendi-egoerei dagokienez. Errege Lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira denboraleek eta beste hondamendi-egoera batzuek eragindako kalteak arintzeko. 2020-12218 xedapena - 4 or.

2020/10/16

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Zergak.**

- 4/2020 Legea, urriaren 15ekoa, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergarena. 2020-12355 xedapena - 12 or.
- 5/2020 Legea, urriaren 15ekoa, transakzio finantzarioen gaineko zergarena. 2020-12356 xedapena - 9 or.

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.- Antolamendua.** - TES/967/2020 Agindua, urriaren 6koa, Nazioarteko Laneko Iruzurrei Aurre Egiteko Koordinazio Unitate Berezia sortzen duena, Laneko eta Gizarte Segurantzako Estatuko Ikuskatzailatza Erakundean. 2020-12359 xedapena - 5 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/10/14

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2020 zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea COVID-19arekin lotutako premiazko zerga neurri gehigarriei, Arabako zerga sistema osatzen duten zerga jakin batzuetan. **2960 xedapena - 3 or.**
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea Arabako Foru Ogasunaren aurrean aitortpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzeari. **2956 xedapena 5 or.**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea aldatzeari Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko administrazio prozedura arautzen duena. **2957 xedapena - 2 or.**
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 427/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak aldi baterako esleitzea Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren buruari. **2961 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/15

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - 48074/2020 Okerrak zuzentzeko FORU AGINDUA, urriaren 10ekoa: Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 43472/2020 Foru Agindua, 2020ko irailaren 22koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak arautzen dituen COVID-19ak eragindako osasun-krisian zehar. **651 xedapena - 1 or.**

- **EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 90/2020 FORU DEKRETUA, urriaren 13koa, zeinaren bidez konkurrentzia libreko dirulaguntzen programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak onesten baitira, COVID-19aren krisiak ukitu dituen turismo-sektoreko enpresa txiki eta ertain eta autonomoentzat. 625 xedapena - 19 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/10/15

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, COVID-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa. 5255 xedapena - 4 or.

2020/10/16

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 389/2020 Foru Agindua, urriaren 12koa, zeinaren bidez zuzentzen baita irailaren 29ko 381/2020 Foru Agindua, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredua eta hura aurkezteko modua onartzen dituen urtarrilaren 22ko 5/2020 Foru Agindua aldatzekoa. 5252 xedapena - 2 or.

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/10/12

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/1429 (EB) Erregelamendua, 2020ko urriaren 7koa, COVID-19aren agerraldia kontuan hartuta tren-merkatu jasangarriaren aldeko neurriak ezartzen dituenak. 1429 xedapena - 5 or.

2020/10/14

- Batzordearen 2020/1474 (EB) Erregelamendua, 2020ko urriaren 13koa, 360/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duena aplikazio aldiaren luzapenari eta krisian dauden enpresentzako aldi bateko salbuespenari dagokienez, COVID-19aren pandemiaren eragina kontuan hartzeko. 1474 xedapena - 2 or.

2020/10/15

- Batzordearen 2020/1477 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2020ko urriaren 14koa, Kontseiluaren 95/93 (EEE) Erregelamendua aldatzen duena, COVID-19aren pandemiatik eratorritako ondorioei aurre egiteko ezohiko neurrien aldi baterako luzapenari dagokionez. **1477 xedapena - 3 or.**
- Batzordearen 2020/1478 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko urriaren 14koa, 2015/1375 (EB) Betearazpen Erregelamendua aldatzen duena laginketari, detekziorako erreferentzia-metodoari eta inportatzeko baldintzei dagokienez, trikinen kontrolari dagokionez. **1478 xedapena - 3 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO